

Lara Barandiaran Aiestaran

E maila • 2 saria

Kaixo, ni Lara Barandiaran Aiestaran naiz, 11 urteko neska beasaingarria. Alkartasuna Lizeoan ikasten dut eta nire zaletasun nagusia dantzatzea da. Ballet eta Funky ikasten ari naiz.

Aspalditik neukan ezberdina izatearen inguruan idazteko gogo. Aukera hau ezinhobea iruditu zitzaidan mezua zabaltzeko eta izugarri pozik nago saria eta guzti lortu dudalako.

Denok garelako lur bereko sustrai eta lore (Goazen).



NI NAIZEN BEZALA

Kaixo! Ni Zigor naiz, eta gaur nire istorioa kontatuko dizuet.

Nik, 9 urte inguru nituela, bizitza oso aspergarria eta tristea nuen. Nire “lagunak”, afeminatua, eta askoz ere gauza gehiago deitzen zizkidaten neskekin egotea gustatzen zitzaidalako. Nik futbola gorroto nuen, bestalde, neskekin ibiltzean, ni neu izango banintz bezala sentitzen nintzen, nahiz eta hasieran neskei arraroa iruditu.

Ikastolan irakasleek arraro begiratzen ninduten, gutxiago balioko banu bezala, baina niri berdin zitzaidan. Nire ama eta biok ez ginen inoiz ongi eraman, ez ninduelako nintzen bezalakoa onartzen, eta ni neu behartuta sentitzen nintzen, ni nintzenaren aurretik nire guraso eta familiako guztiek nola ikusi nahi ninduten bezalakoa izaten, hau da, ni naizenaren aurreaurrean, maskara erraldoi bat jarri, eta pertsona “normal” bat izaten.

Nire lagun hoberena Alaitz da, oso pertsona ona da eta behar dudanean laguntza emozional asko ematen dit. Berak bazekien ni nolakoa nintzen eta berak ulertzen ninduen. Bere ahizpa egoera beretik pasatu zen, eta egoera horrek ulertzeko aukera eman zion. Laguntza eskatu nion:

-Kaixo Alaitz! Zer moduz?

-Ongi, eta zu?

-Gauza baten inguruan bueltaka nabil, eta zure aholkua behar dut...

-Lasai, bota!

-Nahi nuena zera da, beno, badakizu ni kokoteraino nagoela mundu guztia beti ni zirikatzen eta errespetua faltatzen egoteaz eta erabaki dut, momentu egokia denean, klase baten bitartean edo, sentitzen dudana argi eta garbi adieraztea. Ezin dut gehiago isilpean gorde.

-Niri ongi iruditzen zait, baina, noiz izango da une egokiena?

-Ez dakit...

-Agian, ez daukazu egun zehatz bat erabaki beharrik, zuk sentitzen duzunean, aurrera egin.

PROSA

-Ados, eskerrik asko!

-Berdin, agur!

-Agur!

5 egun beranduago...

Ikastolan geundela, giza gorputzeko klase batean geunden bitartean, ni naizena adierazteko momentu egokia iruditu zitzaidan eta irakasleari esan nion:

-Fernando, gauza bat adierazi nahi dut gelaren aurrean. -esan zuen urduritasun eta gogo handiz.

-Bai noski, bota. -adierazi zuen jakinminez.

-Esan nahi dudana da... NESKA BAT NAIZELA ETA NIRI BAKARRIK DAGOKIDALA NOR NAIZEN JAKITEA!!

Gelakide guztiak aho zabalik geratu ziren, baina hala ere uste dut gehienek hau bazekitela... Hoberena, irakaslearen aurpegia izan zen, beldurrezko pelikula batean susto bat hartutakoan jartzen zaizun aurpegiaren antzera! Ikasgela osoa isiltasunak inbaditu zuen, eta denak pentsakor geratu ziren, puzzlearen azkeneko pieza jartzean denak zentzua hartzen duenean bezala...

Gaur egun, 16 urteko neska bat naiz, eta bizitza bizitzen ari naiz, eta ez besteen aurreiritziz eta jende toxikoaren inguruko mundu batean. Noski, izena aldatu dut! Ez dakit zergatik jarri zidaten "Zigor" izena, ematen du jaiotzetik kondenatu nindutela... Oraingo nire izena Aintzane da. Orain nire amaren era nire erlazioa askoz ere baikorragoa eta hobeagoa da, eta ni naizen bezala azaltzen naiz, errespetatuta sentitzen naiz. Eta besteek zer pentsatzen duten nitaz, bost axola!!

Espero dut, beste norbait ni bezala sentitzen bada, lagungarri izango zaiola. Zorte on, eta izan zu zeu!